


Astekaria

BARREN

elgoi



ZEZENBIDE



auto-eskola

San Frantzisko 43,
74 27 20

ARL
mc
AS.

ELKARTEA

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:

IMH HIZKUNTZAK

San Roke Auzoa, 1. 20870 ELGOIBAR,

Tel.: 74 41 32 Fax: 74 41 53

Uztaileko hizkuntz ikastaro intentsiboak

■ HIZKUNTZAK

Alemana, **Ingelesa**

MAILAK

Maila guztiak Kurtso
orokorrak

ingeles komertziala /
Idazkaritza

Elkarrizketa saioak

First Certificate azterketarako
prestakuntza

Teknikoa Itzuipeña

4/ Iraupena:

40 ordu (2 ordu egunean),
ekainaren 27tik uztailearen 23ra.

✓ Ordutegia:

goizez eta arratsaldez.


If I rakasiegoa: jatorrizkoa.

✓ Ikaslegoa:

15 urtetik gorakoentzat.

✓ Matrikula epea:

ekainaren 24ra arte.



ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko izarra.

LAGUNTAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iiaki Arrieta, Antton Bergara,
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Irrozio Sarosua.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAREAK:

Maite Rementeria,
Edu Sanz.

PUBUZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADmiNtsTRAzioA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

1rati Agirreazaldegia, Itziar Agirregamezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Elxaniz, Felix Etxeberria, Izaro Etxegibel, Eneiz Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amoia Gorostiza, Alfonso Guilla, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Iarraliaga, Imanol Larraiiaga, Haritz teon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Moya, Iiaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose Inozio Sarasua, Oihona Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzillo, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasanfe, Alaitz Vives, Aitor Zaboleta, Yulen Zaboleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrolaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga

DRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: \$S-1 .038/92

ISSN: 1133-021X

efgaiBARREnek ez du bere gain harizen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ZENEAT OU129



ilinilMAY AOU129

Azken Txanpa

Udaberria, urte guztiko sasoirik ederrena askorentzat, ez omen da horren eder eta lasaia ikasten diharduten gazteentzat. Esaminak gainean dituztela, ez dute azken txanpa honetan, kanpoko aireaz gozatzeko aukera handirik izaten. Beharbada, gehiegikeria hutsa besterik ez da hau, baina oraindik ere, gogoan ditut ikasle nintzeneko egun gogor eta ilun haiek. Ilunak batez ere, gauetz, ordu luzeak eman behar izaten nituelako liburuen aurrean. Aprobatur ala suspentsoa, horixe zen gehientsuenon kezka. Gaur egun, berriz, nota altuagoak behar dituzte izan ikasleek, batez ere, Unibertsitatean ikasi nahi dutenek, bakoitzak aukeratutako ikasketak burutu nahi baditu. Hauxe da hain zuzen ere, oraintsu selektibitateko azterketa egin duten hamairu mila ikasleen ardura. Batzuentzat, opor egun apartak etorriko dira segidan. Beste batzuek, berriz, amore eman eta berriz ere ekin beharko diote apunte eta liburu astunei. Baina esaera zahar batek hala dio: "Ahal dugun Igeez eta ez nahi dugun Igeez", eta pasa beharreko okerrak ere, pasa behar izaten dira.

Aprobatur ala suspentsoa ez da azken egun hauetan ikasleen buruhaustea izan bakarrik. Guztion onespene eta aprobaturaren bila ibili izan dira baita ere, politikariak, bai eta Atletie-eko lehendakaritzarako aurkeztu diren hautagaiak ere.

Hauteskundearen sindromea bizi behar izan dugu guztiok. Eta oraindik ere, egunetan


jasan beharko dugu. Dena den, bakoitzak bere kalifikazioa jaso du dagoeneko eta aurrerantzean erreflexio egunak etorriko dira. Gauza batek harritu nau Europako Legebiltzarrerako hauteskundearen emaitzak jakin eta gero. Alderdi gutxi batzuetako ordezkariak, izandako emaitza txarrak ikusiaz, euren akats eta erruak aztertu eta onartu dituzte, bakarren batek, bere dimisioa ere aurkeztuz. Orain arte izandakoetan, nik gogoratzen dudanez behintzat, guztiak zeukaten aitzakiaren bat edo beste, botuen beherakada azaltzeko orduan. Beharbada, beste estrategia politiko bat baino ez da baina "ez dago ilargia beti bete-betean". Orain, esamina pasa dutenek, zein europar bikainak diren erakutsi beharko digute.

Beste batzuk, Berasategik adibidez, notarik altuena lortu du Rolland Garrosek tennis zelaietan. Indurain ez da gaizki baina oraindik gehiago egin dezake eta horretarako beste aukera bat izango du Frantziako Tourrean. Horrela diote behintzat txirrindularitzazale gehienek. Gaurtik aurrera, futboleko mutilek erakutsi beharko digute mundialetan, zer nolako maila daukaten. Baina horren berri, futboleko adituak direnek emango digute.

Udaberria joango zaigu, udara ondoren, eta azkenik, aprobatur ala ez, eguneroko normaltasunera itzuli beharko dugu.

Olga Unzila

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



• **Zer dela eta ematen dio Udalak bi milioi pezeta Guass Diskotekari?**

Kultur Teknikariarekin egon gara eta berak esan digunez, Udalak eta Diskotekak hitzarmen bat daukate sinatuta, Hitzarmen honen bidez larunbat arratsaldetan diskotekan alkoholik ez saltzeko konpromezua hartzen da.



111,111X

Ikastolako 7. mailakoak eton-i dira Udal Dantza Eskolako arduradunei euren kexa helarazteko. Ekainaren 8an Herriko Antzokian izan zen urte bukaerako Dantza Jaialdian ez omen zieten umeei sartzen laga. Gurasoek lehentasun osoa omen zuten eta hori ez zitzairen batere gustatu.



TXALOAK

Irakurle batek IMHko lorategiak zaintzen dituztenak txalotu nahi ditu. 13.000m2ko lorategia daukate eta benetan ikustekoa omen da nola zainduta dagoen. Lorategiak beste itxura bat ematen omen dio ikastetxe ingaruari.

Eskerrikasko Mendizale Astea burutzen lagundu duten guztiei

Morkaiko Mendizale Elkartearen izenean, BARRENEk eskaintzen duen txoko hau aprobetxatu nahi dut, eskerrak emateko publikoki Elgoibarko denda, elkarte eta pertsoneri, eskaintako laguntzagarik, beraiei esker aurten ere posible izan delako Elgoibarko Itzulia eta Finalista Eguna egitea.

Hauexek dira lagundu dituzten dendak: Agirre Harategia, Iraola Harategia, Armueta Harategia, Patxi Harategia, Fraile Harategia, Garai Harategia, Landa Harategia, Ibar-Txiki ardoak, Atiz-Bizkar ardoak, Bollar fruteria, Dora urdaitegia, Idarra Kafeak, Gastronomía Cantalrica (Jon Ulazia bereziki), Eroski, Eiza Agirre okindegia eta Iñaki Beristain edari banatzailea.

Elkarteak: Karakate Elkartea, Kalamua Elkartea, Biar-Dana Elkartea eta Txistularien Udal Banda eta Haritz Dantzari Taldea.

Pertsonak: Iñaki Beristain, Valentin Txurruka, Jose Luis Arana, Primitivo eta Jaime Martinez eta Eugenio (Udaletxekoa).

Guzti hauei gure eskerrik beroenak bi aste hauetan zehar emandako laguntzagarik.

Andoni Goikolea
MORKAIKO Mendizale
Elkarteko Lehendakaria





ste honetako erretratu Ful Etxanizek lagatakoa da. Erretratu 1923. urtekoa dugu eta bertan azaltzen den mutil kuadrila Ospitaleko Monjen

ofill eskolan zebiltzan mutikoek osatua da. Duela ehun eta hogeita bost urte jarri omen zuten eskola martxan eta 1972. urtera arte egon zen zabalik. Eskolaurrean neskak eta mutilak nahastuta egoten baziren ere. gero banatu egiten zituzten.

Ikus dezagun zeintzuk diren argazkiko mutilak:

Goitik behera ezkerretik hasita: Igo ilaran: Juaristi "Argingua" (t), J. Jose Aizpitarate "Kakatza" (t), Jose Elkoro-Iribe (t). Emeterio Oria (t), Jose Oria (t), Kalixto Zubiaurre, Migel Garate "Kaminero"

(t), Pedro Bastida (t), Pako Elorza (t) eta Prudencio Zubiaurre.

2. ilaran: Agustin Galarraga "Artetxe", Andres Aizpitarate "Kakatza", Agustin Etxaniz "Toletxe" (t), Jesus Canales (t), Sabino Sorrondo, Ramon Canales, Victor Rementeria (t), Moises Agirre "Errezabal", Julian Laskurain (t) eta Jose M. Mendizabal.

3. ilaran: Anjel Ajubita, Fdez. de Jauregi, Antonio Sorrondo (t), Victoriano Belastegi (t), Eulogio Oria (t), Justo Etxabe (t), Anacleto Rementeria (t), Etxabe, Imanol Leiaristi (t) eta Tomas Juaristi.

Lurrean eserita: Pedro Sixto (t), Jose Arozena (t) eta Pedro Peñalba (t). Moja: Sor Ana Azpeitia.

ZURE AURREZKIAK ERRENTAGARRIAK IZATEA NAHI BADUZU AUKERA GAITZAZU INTERESAGATIF

URTE BETERAKO DEPOSITOA
HILABETEKO INTERESAK
* T.A.E. ADIBIDEAK
500.0110 metatik gorako kopumekin,
Lehenengo pezetatik gastu eta komisiorik gabe.

500.000 pta.	% 7
2.000.000 pta.	% 7,20
5.000.000 pta.	% 7,40

anrrGs

ed'eq-e(f-%

gra
1311131A0

BILBAO HIPOTEKAIRIA, S. C. H.

San Frantzisko 42. Tel 74 28 64

URTE BETERAKO DEPOSITOA

ZURE AURREZKIAK AHALEGINAK ONENA MEREZI DU!

Zure depositoa ekainaren 30a baino lehen egiten baduzu, % 0,25eko (TAE) gehigarria izango duzu.

larunbat arratsaldeak Elgoibarren

Pare bat trago hartu nahian San Frantzisko kaleko taberna batean sartzeko ahalegin hutsala egin ondoren, nork ez dio inoiz bere buruari galdetu: "zer demontre gertatzen da Elgoibarren larunbat arratsaldetan?" Horixe jakin nahian, edo hobeto esan, 16 eta 18 urte bitarteko gazteak larunbat arratsalde osoa tabernetan sartuta pasatzera bultzatzen dituzten arrazoi edo arrazoiak jakin nahian, albokoaren ukalondoa eta izerdiak aguantatzen gehienetan, herriko sei gaztek gaiari buruz hitz egiten jardun zuten joan den astean Elgoibarko Izarra elkarteak Kultur Etxean antolatutako mahainguruan. Dударik ez dago aita-semeen artean polemika handia sortu duen gaia dela, mahaingurura hurbildu ziren guraso eta gazteen artean, azal azalean soma zitekeen enfrentamendua. Istilu generazionala ote? Ondoren, bertan entzun ziren galdera eta erantzun interesgarrienak bildu ditugu.



• [7] **Parte hartzaileak:** Maria Bergara, Patxi Zabaleta, Ekaitz Baskaran, Maider Lizundia, Birjina Senosiain eta Jon Gurrutxaga. **Moderatzailea:** Aitor Zabaleta.

AITOR ZABALETA: - Zer egiten duzue zapatu arratsalde batean?

MAIDER: - Tabernetan ibiltzen gera gehienbat.

PATXI: - Bueno, kalia ere bai. Eske tabernetan jende gehixegi egoten da. Askoz hobeto egoten dia ostiral gauak, ez da kanpoko hainbeste jende egoten.

MAIDER: Baina egixa da kanpokuak ez bazian etorriko ez zala berdin izango.

AITOR: - **Kanpotarrak zergatik** etortzen dira?

MAIDER: - Edarixa daualako eta gurasoek ez ditxuztelako ikusten.

AITOR: - Diru asko gastatzen al duzue?

PATXI: - Ateratzen dogun guztia.

BIRJINIA: - Segun eta zer planetan urtetzen zeran. Badao zetan urtetzen dan jendia eta pilo bat gastatzen dabana. Afarixak badaoz anbertia egoten da eta askoz gehixao gastatzen da.

AITOR: -Zertan gastatzen da dirua?

MAIDER: -Alkoholian eta tabakuan.

AITOR: - **Nola ikusten duzue drogen mundua?**

PATXI: - Drogak kalia daude, ez dabanak ikusten, nahi ez dualako da.

MAIDER: - Jeneralian droga suabiak, porruak.

EKAITZ: - Jende gaztia ez da hasten heroi-
niakin.

PATXI: - Orain pastillak daude modan.

AITOR: - **Ze pastilla?**

PATXI: - "Marrones y amarillas", abestixak esaten daban bezela.

AITOR: - Zelakuak dia?

PATXI: Ez dakitx, ez ditxut probau eta ez daukat asmorik.

AITOR: Holako pastillen mugimendu handia al dago?

MAIDER: - Asko asko, ez.

MARIA: - Gehienbat kostua ikusten da. Tabakua bezela da, onartuta dao.

AITOR: Jende nagusiak "desmadre" handia dagoela pentsatzen du.

MARIA: - Esajeratu egiten da. Jende mordua egoten da, horregatik proportzioa ez da hain haundixa.

PATXI: Pasatzen dana da hamen ari gerala hitz egiten 3500 gazte juntatzen dila. 3500en artetik, media ez da hain txarra. Eta beste guztiak, kalia ondo pasatzen ari dianak?

EKAITZ: - Zeri esaten diogu desmadria, lurrian botata egotiar? Honbre, beti egoten dia bi edo hiru kalia botata pelia botatzen.

BIRJINIA: - Jende gehixo da estremu hoietara heltzen ez dena. Asko esajeratzen da.

PATXI: - Kriston atxurrakin etxera jun biharrian kalia geratzen dianak daude. Mobidia da lurrean ikusten bazaituzte jendia nahi dabana pentsau dezakeela.

AITOR: Zer diote gurasoek?

MARIA: Gurasuak normalian beti fia-
tzen dia bere seme alabez.

JON: Hori egixa da, beti bestien
semiak ikusten ditzue, norberan semiak
beti dia onak.

PATXI: - Gurasuak gehixegi kezkatzen
dia. Kanpora juten geranian beti berdin
`ez jun kanpora, karreteran zeozer
pasau leike...' Gertatzen dana da gure
edadiakin, gurasuek drogen beldurra
eukitzen dabela.

AITOR: - Alternatibarik ba al dago?

MAIDER: - Kuadrila osua poteatzera
badixe, aber zer ein biozun!

PATXI: - Ein leikez beste gauza batzuk.
Ni batzutan ez naiz tabernetan ibiltzen
eta ez naiz aspertzen.

BIRJINIA: Baina ez dao tabernetan
egotia nahi ez duen jende asko. Taber-
nak dia biltzeko daukagun leku bakarra.
Gainera hor egoten da ambientia.

AITOR: Udalaren gazte politika
zuzena al da?

EKAITZ: - Nik ez dot ikusten Udalak
gaztientzat ezer berezirik eitxen daban-
ik. Badaukaguz tabernak, liburutegi
bat... eta ez dakit zer gehixo.

BIRJINIA: - Zaila izan bihar da alternati-
bak topatzia zu ez zaudenian sartuta.
Igual eurentzako liburutegi bat da alter-
natiba egokixena eta guretzat ez. Guk
ideak eman beharko genitxuzke eta
eurak praktikan jarri.

AITOR: - Lige asuntua nola juten da?

MARIA: - Beti talde berdinaekin erlazio-
natzen gera, eta zaila da.

EKAITZ: - Aspektu horretan nahiko giro
txarra egoten da.

BIRJINIA: - Badaoz mozkortzen dianak,
kasu hauetan gau baterako ligiak urte-
tzen diaz.

PATXI: - Ligatzeko suertia euki bihar
da, asko!

AITOR: Eta Disco-lighta?

PATXI: - Bai, ni sartu nintzan behin. Ez
zauan inor, eta zaozenak kriston atxu-
rarkin gainera. Uste dot nahiko argi
dauala zergatik ez zaban funtzionau.
Alkoholik gabe...

BIRJINIA: - Diskoteka hori ez zan gure-
tzako alternatiba bat.

PATXI: Taberna mordua badaoz, nor-
mala da tabernetan egotia egun guztia.

MAIDER: - Gu igual kontrolatzen gera,
baina 14 urtekuak, oin hasi dianak era-
ten, ez dia kontrolatzen.

M
A
R
A



A
T
X
I



M
A
D
E
R



J
O
N

PATXI: - Gainera zerikusi haundixa
dauka zure egoerak. Pozik bazaude pilo
bat eran eta igual ez zera atxurtzen.

EKAITZ: - Mozkorrak planeauta egoten
dia.

PATXI: - Ez pentsau! Batzuetan esaten
dozu: `ez nixe eratera", eta gero eraten
bukutzen dozu.

AITOR: - Alkohola zuentzat, arazo
bat al da?

PATXI: - Guk ez dogu arazo bat bezela
ikusten. Joku bat bezela ikusten dogu.

MAIDER: - Asko edaten badozu izan
leike problema bat, baina bestela ez.
Larunbatetan bakarrik edaten dogu.

EKAITZ: - Txikiteatzen egotia egunero
ala astean behin, larunbatetan, eratia da
hobia?

JON: - Baina guk nor ikusten dugu eda-
ten? Nagusiak.

PATXI: Eskusa ez da ikusten ditugula.

BIRJINIA: - Heldutasuna ematen dizula
dirudi. Txikitan entzuten dozu txarra
dala, eta horrek atentzioa deitzen du.

PATXI: - Askotan komentatzen dogu
gure artian, bateonbat pasatzen darian,
pistoia bajatzeko.

MARIA: - Orain 16 urtetik beherakueri
sarrera debekatu bihar jakue tabernetan
eta 18tik beherakueri ez jakue alko-
holik serbiduko.

EKAITZ: Hola ez da ezer konpontzen.

PATXI: Gauzia ez da libertadia ken-
tzia. Askotan jakinda ez daukazula
etxera juteko ordurik, Iasaixao eraten
duzu, prisarik gabe eta askotan gutxia-
go eraten da.

Birjina: - Ez dot ikusten alkoholakin
holako arazorik daonik.

Maider: - Askotan ez da asko eraten.
Badaoz, bi gorrikin lurrian daudenak.

Birjina: Batzuetan ez dia gorriak
bakarrik izaten. Tekilak ere edaten dia.
Askotan, hainbeste diru daukazu, eta
mozkorra hartzeko kalkulatzen dozu
zenbat edan bihar dozun.

Aitor: - Bukatzeko, zer etorkizun
ikusten diozue Egoibarri?

Birjina: - Jendiak jarraitxuko du etor-
tzen. Elgoibar ez bada, beste herri bat
izango da.

Maider: - 10 urte pasau dia eta berdin
jarraitzen dogu, edo txarra!

Patxi: - Batek daki zer izango dan!

- Eskerrik asko guztioi eta
beste bat arte.

Fotero

OKINDEGIZI
OPIILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

MIREN arraindegia



Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

Logopedia Zentroa



Isabel Gil Arrese

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

Bidebarrieta, 27-B
Tel. 11 84 71 EIBAR

Eguzida hartzeak ekar cazakeen arriskuak

Egunetik egunera ugariagoak dira eguzki radiazioen eraginez sortzen diren gaitzak. Eguzki energia radiazio tipo ezberdinez osatua dago eta lurrera iristen direnak ultravioletak (A eta B), ikusten den argia eta infragorriak dira. Bizitza motzena duten radiazioak dira indartsuenak eta kaltegarrienak eta ozono geruza arduratzen da hauek lurrera pasatzen ez uzteaz. Kaltegarriena B ultravioleta izeneko izpia da, hain zuzen beltzak jartzen gaituena, erretzen gaituena eta azalean eragin gehien duena.

Eguzkia hartzeak hiru ondorio sor ditzake epe motzera: erredurak, fotosentsibilitateak eragindako erreakzioak eta azalak hartzen duen kolore iluna. Epe luzera, ordea, arazo larriagoak sortzen dira, adibidez, geratosiak eta minbiziak.

Eguzkiak eragin ezberdina dauka azalaren arabera. Alde batetik azal zuria daukaten pertsonak daude, apenas morenatzen direnak. Hauek, 10/15 minutu eguzkitan egon eta gero erre egiten dira. Beste batzuek, bigarren tipoko pertsonak, ez dira horren erraz erretzen eta kolorea ere gehixeago hartzen dute. Hirugarren tipologian batzuetan erre arren, beti morenatzen direnak daude. Azkenik, sekula erre gabe beti morenatzen diren horiek ditugu.

Eguzki izpiek sor ditzaketan kalteen aurrean, fotoprotekzio tipo ezberdinak aurki daitezke. Protektore fisikoak opakoak dira eta UV izpiak desbideratzen dituzte, ez dira oso estetikoak baina oso erraz erretzen diren zonetan emateko balio dute, hala nola, ezpainenan,

sodurrean, belarrietan edo kopetan. Filtro kimikoek ez dituzte erabat galerazten erredurak eta morenatzeko aukera ematen dute eta zenbat eta zenbaki altuagoa erabili, orduan eta B tipoko UV gehiago baztertzen ditu. Lehenengo eta bigarren tipoko azala dutenei 15 zenbakiko filtroa erabiltzea gornendatzen zaie, edo altuagoa. Hirugarren tipokoak 10 eta 15 bitarteko filtroak eta laugarren tipoko azala dutenek, berriz, 4 eta 10 bitartekoak.

Orokorrean, zenbat eta ordu gutxiago egon eguzkia edo bestelako argi artifiziala hartzen, hobeto. Eta, ahal den neurrian eguerdi aldeko orduak ekidin behar dira. Lehenengo eta bigarren tipoko azala dutenak bereziki zaindu behar dira, bai eta familian azaleko minbizia sofritu dutenak ere.

Halere, esan beharra dago eguzkiak badituela eragin onuragarriak gizabana-koaren osasunean eta morenatzeak ere baduela berebiziko garrantzirik estetiko-ki, ondorioz, baita gure autoestiman ere. Gauza guztietan bezala, eguzkia ere neuniz hartzea da aproposena.

(Erredakzioan itzulita)



PATXI EZKURRA (medikua)

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. Tr 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

(1:00) **XABIER**
ILEPAINDEGIA
Eduito
e94ota, eta 01.-duct
San Bartolome 13, Tel 74 19 97

GRANDALÓ
OIHALA
ela
MERZERIA
Errosario 8. Tel:74 35 95

hildurrik emailer all dizu eguzkiak?



25 urte, langabetua

Bai. Ezkontza bat eduki dut eta kolore piska bat hartzeko nahiago izan dut morenatzeko krema bat ematea eguzkia hartu edo solarium-era joatea baino.



MARINA COLINA

52 urte, etxekoandrea

Ez, batere ez. Ohitura daukat eguzkia hartzerakoan protekzioa emateko baina ez diot beldurrik. Alabak batzuetan egiten dit errietan baina...



MARI LOZANO

18 urte, etxeko-langilea


Ez, eguzkia hartzen dudanean krema bat ematen dut azaleko arazoak dauzkalako, baina gainontzean ez diot batere beldurrik eguzkiari.



JUAN ESNAOLA

49 urte, rektifikatzailea

Ez. Mendira asko juten naiz baina ez euzkixa hartziagatik. Hondartzan naua ematen dot protekziva baina ez ozonuari buruz entzuten danagatik.



VRI190

61 urte, jubilatua

Ez, ez diot batere beldurrik. Nik eguzki asko hartzen det mendian eta oso ondo nago. Sekula ere ez naiz erre, azala oso gogorra daukat.



F. JAVIER CARRION

18 urte, ikaslea

Ez diot beldurrik. Oraindik ez naiz eguzkia hartzen hasi baina mendira noanean adibidez, ez dut protekziorik ematen. Hondartzan bai, ez erretzeko.

HITZALDIA

Ekainak 22, asteazkena
arratsaldeko 7,30etan
Kultur Etxean

INSUMISIOA ETA OBJEZIOA

HIZLARIA: Patxi Agirre
(Gipuzkoako EGIko ordezkaria)

ANTOLATZAILEA: Elgoibarko EGI

IRAKASLE ESKOLA

Magisteritza Eskolak zera jakinaraten du:
t < 1994-95 ikasturterako aurreinkripzioe
pea zabalik dagoela.

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa
- Hezkuntza Musikala

informazioa

1RAKASLE ESKOLA. Tel: (943) 71 41 57
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoci)

• Liburutegiko jaia

Udai Liburutegiak jaialdia antolatu du hil honen 24rako, ostirala. Jaia Plaza Handian arratsaldeko 4etan hasiko da. Entreenigarririk ez da falta izango. Lehenengo liburu erraldoi bat egingo dute haurrek, ipuin handi bat asmatuz eta berau margotuz. Txaparekin lan egiteko aukera izango dute Liburutegiko maskota txapan eginez, aurpegiak makilatuko dituzte une batez ametsetako pertsonaia bihurtuz, eta jai giroarekin jarraituz, kalejira izango dute. Bestetik, irakurketa gida kaleratu du Liburutegiak. Bertan 0 urtetik 5era, 5etik 8ra, 8tik 12ra eta 12 urtetik gorakoentzat kaleratu berri diren liburuen izenburuak agertzen dira.

• Intsumisioari buruzko hitzaldia

Elgoibarko EGIK intsumisioa eta objezioaren inguruko hitzaldia antolatu du datorren asteazkenerako, hilak 22. Gipuzkoako EGiko ordezkaria, Patxi Agirre, izango da hizlaria. Ekitaldia Kultur Etxean burutuko da arratsaldeko 7,30etan. Gaiaren inguruko kezkarik duen oro, parte hartzera gonbidatuta dago.

• Karidadeko monjei buruzko mahaingurua

Karidadearen lagundiko monjak Elgoibarrera etorri zirenetik 125 urte bete direnez, hainbat ekitaldi antolatu dira urteurrena ospatzeko. Datorren ostiralean, hilak 24, Karidadeko monjei buruzko mahaingurua burutuko da Kultur Etxean arratsaldeko 7,30etan hasita. Ekitaldiari hasera emango dio Koldo Lizarralde historialariak.

Karidadeko alaben bizitzaren testigantza eta gaurko gizarteko erantzunei buruz Sor Itziar Etxeberriak jardungo du. Joxin Arregi apaizak Karidadeko alaben gaur egungo paperaren ikuspegia emango du. Ospakizunen barruan bazkari bat antolatu du ikasle ohien batzordeak hilaren 26rako.

Farola berdak kalle nagusietan



Udala argiztapen berria jartzen ari da alde zaharra deitzen den horretan, hau da, San Bartolome kalean, Errosario kalean, Nafarroa Enparantzan eta San Frantzisko kalean. Guztira 40 bat farola jarriko dira. Udaleko Hirigintza Batzorde-tik jakitera eman dutenenaren arabera, banaketa modu honeta egingo da: 10 Errosario kalean jarriko dira, 10 San Bartolome kalean, 4 Nafa-

rrua Plazan eta gainontzeko 16ak San Frantzisko kalean. Azken honetan farola gehiago jarriko dira, kalea bera luzexegoa delako. Aurrekontua 3 milioi ingurukoa da. Lehenagoko aluminiozko farola funtzionalen ordeztuz, "palacio" modeloko farolak jarriko dira, beso beltza eta tulipa zuridunak, kaleen itxurarekin bat datozen farolarik aproposenak dira eta.



Paper kontenedoreak erakusten duen bezala, papera eta kartoia zintzo botatzen dugu elgoibartarrok Deba Beheko Mankomunitateak jarritako ontzietara. Oraingoan astean behin egiten da kontenedoreen hustuketa, eta dirudienek, sarriago egin beharko litzatekeen gauza da. Momentuz, hustuketa zenbatean behin egin behar den aztertzen ari da Mankomunitatea eta beharrak agintzen duenaren arabera egokituko da zerbitzua. Gogoratu, edozein zalantza edo informaziorako 70 07 99 telefono zenbakira dei daitekeela.

Ostegune ake merkatua Plaza Handian geratu da

Ostegunetako azoka edo merkatua maiatzaren 26an eta ekainaren 2an Plaza Handira aldatu zuten Trinitate jaiak zirela eta. Erosleek eta saltzaileek ondo baino hobeto hartu zuten leku aldaketa eta arrazoi honegatik, Plaza Handian kokatzea erabaki du Udalak azoka. Leku aldaketaz ohartu ez direnak, beraz, jakin dezatela Plaza Handira joan beharko dutela aurrerantzetan ostegunetako azokako erosketak egitera.

"Oraindik goiz da leku aldaketari buruzko inongo baloraziorik egiteko" esan digu azokako arduradunak, Karmelo Modamiok, baina "salmenten espektatibak onak izango diren esperantza daukagu". "Lau kaletan antolatu ditut saltokiak eta itxuraz, asko irabazi du azokak" dio Karmelok. 1972. urtean, azoka-

plaza berria inauguratu zutenean, hasi ziren saltzaileak bere postuak Plaza Txikian jartzen. Lehenago, azoka-plaza zaharraren atarian egoten ziren. Ostegunetako azoka 22 urtez egon da Plaza Txikian. Hedapen handieneko urteak 80. hamarkadako urteak izan dira, krisialdiko urteak, hain zuen.

Gaur egun, 46 saltzaile inguru dira ostegunero etortzen direnak. Merkatua itxia denez, ezin dira saltoki berririk jarri. Duela bi urte hasi zen Elgoibarrera etortzen azken saltoki berria. Postu guztiak arropa eta zapata saltokiak dira, eta postu bat lore saltokia. Janari postuak, sei guztira, merkatu plazan egoten dira orain, baserritarrekin batera. Izan ere, osasun arazoak zirela eta kalean egotea debekatu zitzairen.



Gestio Eskollak eta iVIHk antolatuta, "Euskal Herriko kompetitibitateko oinarritzko baldintza : kalitate osoa" izenburupeko foruma burutu zen. Hizlari izan ziren, FVFC/KSEIko zuzendaria den Mikel Ugalde, Jesus Larrañaga AENOREko presidentea eta Juan Maria Uzkudun COPRECIko zuzendari gerentea. Forumera entzule mordo bat urreratu zen, tartean gestio Eskolako ikasleak eta, gestiogintzaren munduan diharduten hainbat zuzendari.

• San Migeltarren eguna

San Migeleko jai batzordeak eta Elgoibarko Izarra elkarteak bertso jaialdia antolatu dute hilaren I Srako. Gaueko 10,30etan hasita Andoni Egaña, Jon Lopategi, German Meabebasterretxea, Iñaki Murua eta Xabier Zeberio bertsolariak puntua jartzen arituko dira. Igandean, hilak 19, San Migel auzoan bizi direnek, beren eguna ospatuko dute. Auzotarren jai batzordeak prestatutako jai egitaraua goizeko 11etan hasiko da, bailarako hildakoen alde ermitan izango den mezarekin. Ondoren gosea asetzeko, txorizoa eta salda banatuko da auzotarren artean. Eguerdian eskuz banakako "Murkaikupe Pilota txapelketa"ren finala jokatuko da. Berehala Maixa, Itziar eta Garbiñe trikitilariak giroa alaituko dute. Tartean bertsolariak ere arituko dira. Ordubietan anaiarteko bazkaria izango da, segidan aspertu arteko erromeria hasiko delarik.

■ Pintura erakusketa

Egur Arte Lantegiak ikasturtean zehar egindako lanen erakusketa egingo du Kultur Etxean hil honen 17tik aurrera. Erakusketan oleoak, akuarelak eta beste teknika batzuen bidez margotutako kuadroak ikusi ahal izango dira. Bisitatzeko azken eguna, uztailearen 10a izango da. Ordutegia ohizkoa izango da.

• Gurasoen eguna Ikastolan

Ikastolak gurasoen eguna ospatuko du larunbat honetan, hilak 18. Jaia goizeko 10etan hasiko da. Lehen mailatik 6 madara bitarteko haurrak altxor bila arituko dira eta haur txikienentzat, jolasak egongo dira. 12etan gurasoen txanda izango da, eta 2etan algun arteko bazkaria izango dute. Jaia arratsaldera arte luzatuko da eta egun osoan zehar Argitxo irriak (105,5) jardungo du 7. eta 8. mailako ikasleen laguntzarekin.

Felix Lodoso:

"Musika jaio, bizi eta liltzeko behar da"

Felix Lodoso aipatzean ezinbesteko da musikaz hitz egitea, bata bestearekin baitago lotua.

Oñatiko seminarioan ikastea izan zuen lehenengo kontaktua musikarekin: solfeoa, koroa... Ordutik gaur arte, etengabeko bidea jorratzen joan da Felix: Elgoibarko Musika Bandan klarineta jo zuen,

zuzendari ordea ere izan zen, Parrokiako koroko zuzendari, I.Bereziartua kontserbatorioko sortzaileetarikoa eta egun Eibarko Musika Bandako zuzendaria da, besteak beste. Sekula konposiziorik egin duen galdetu diogunean ezetz erantzun digu, "gauza txikiak bakarrik", baina jakin dugunez badauka "Txoriñua" izeneko bat.

- Parrokiako koroa haseran gizonezkoena zen.

- 24 urtekin hasi nintzan korua zuzentzen eta lehenengo gizonezkuena zan. Baina segiduan bihurtu zan mistua. Bixak dia aberasgarriak, bakoitzak bere gozotasuna dauka, tinbre diferente bat. Easo gizonezkuen korua, adibidez, oso ederra da entzutia.

- Afizioz bakarrik iraunal dezake koro batek?


Oso gaitza da. Aurrera urtetziak eskatzen dau astero gitxienez bi edo hiru entsaio eixia eta jende asko ez da egoten horretarako prest. Gainera ahotsa beste instrumento bat bezela zaindu bihar da, ezin da erre, ez edan... Teknikia eukitzia ere inportantia da eta hoiek danak itxeko demaseko afiziva bihar da.

- Teknikaren aldekoa?

- Teknikia darian da inportantia, arte guztietan, pinturan eta musikan berdin. Zure barruan zeozer euki arren, maixu batekin hobeto urtetzen da, berak erakusten dizu barrukua kanpora ateratzen.

- Eibarko Bandako zuzendaria zara. Zer behar da zuzendari izateko?

Lehenengo osasuna, gero bihotza, beharrezkoa da. Musikia gauza estatiko



"Pasodoble torero askok ez dake inbirixaritan sinfonia batzuen aurrian"

bat da eta zuk nartxan jarri bihar dozu, barruko indarra, sentitzen dozuna transmititxu bihar dozu. Ideak eta ritmoa eukitzia ere inportantia da baina printzipala bihotza da.

- Zer sentitzen du zuzendari batek kontzertuan?

- Zure esku dao dana. Nota bakoitza, momentu bakoitza zuzendarixak musikueri transmititxu bihar diue gero hauek entzulieri pasatzeko sentinentu hori.

- Non amaitzen da afizionatua eta non hasten profesionala? Dirua al da

baldintza?

Ez, ez, diruak ez dauka zerikusirik. Gaur egunian musika kritikiko "profesional" asko dao eta ez dake idearik ere musikiaren inguruan. Kritikarik onenak musikuak eurak dia, benetan ulertzen dabena eta hoiek esandakuak daka bihar bezalako fundamentua. Beitxu, adibidez hor dakagu Manuel de Falla zana. Bizi izan zanian ez zaban duro bat euki eta hil ondoren, bere epokako musiko onenetariakua kontsideratzen da. 'Haura profesionala zan,

benetako profesionala eta bizi izan zanian ez zaban dirurik jaso.

- Profesionala izatea musiko izatea al da?

- Profesionala izan bihar da musiko izateko. Asko ikasi bihar da, musika estilo guztiak ezagutu, zuzendaritza ikasketak egin... Eta, lehen esan doten bezela, bihotza eta osasuna ere beharrezkuak dira. Sentitu in bihar da, artistia ez bazera, alperrikan.

- Zein da jotzen jakin nahi zenukeen instrumentua?

- Klarinetia piskat jotzen dot eta hori ondo jotzen jakitia gustauko jatan. Orduak sartu bihar dia ondo jotzeko, danerako bezela.

- "Hau bai, hau ederra", ze obraren aurrean esango zenuke?

- Milaka konposizio on daude. Eta hoiaren artean, "pasodoble torero" eta "zarzuela" askok ez dake inungo inbirixarik sinfonia batzuen aurrian. Pasatzen dana da hoiek beti klasifikau izan diazela "de genero menor" bezela.

- Musikarik gabe...

- Ezin leike bizi, danerako bihar da musikia, jaiotzeko, bizitzeko eta hiltzeko.

La ak BARRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 4. GEHIGARRIA



Atzera eta aurrera, batera eta bestera, jira eta buelta... Gustura baino gusturago ibili ziren Zaharren Biltokikoak duela aste batzu, Trinitate jaiak ospatuz, izan zuten dantzaldian. Gelatxo taldeak behar bezalako giroa jarri zuen nahiz eta, bistan denez, bikote hauek gauza gehiegirik ez behar pauso arinez baltsak, pasodobleak edota tangoak ere ederki dantzatzeko.

Gazte denboretan auzo eta herrietako hainbat erromeriatan eman zituzten euren lehenengo pausoak, ekinaren ekinenez egina dator eta hauek ez dituzte, ez, erraz ahaztuko ikasitakoak, dantzatzeko aukera duten bitartean behintzat. Eskutik heldu, gerritik kolpe egin eta, hona hemen trukoa, gorputza aske utzi, berak azaltzen baitu musika bakoitzari dagokion erritmo aproposa..

m P 3	<p>t4p, ,,: „j0</p>	<p><i>Familiakoren bat edo lagunuen bat hiltzen bazaizu BARRENEk sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.</i></p>	ri El /
----------	-------------------------	---	------------

KONTXITA ARMENDIA

"Gure antzerkiekin Arriagaraino ailegau giñan"

Beharbada gazteenek ez dute jakingo Elgoibarren garai batean izan zela aukerarik antzerkia ezezik zarzuelak ere ikusteko. Guztiak herriko neska-mutil kuadrila gazte batek eginak. "El Caserio" bezalako obra ospetsuak antzeztu zituzten, dirurik gabe baina ilusio eta gogo handiz. Eta Bilboko Arriagan ere izan ziren behin. Kontxita Armendia talde ezagun hartako partaidea izan zen.

- Nola hasi zineten antzerki-gintzan?

- D.Ramon eta D.Jose Maria apai-zeekin hasi ginan, batakin dramia eitxen eta azkenakin komedixia. Erderaz eitxen genduan dana, zarzuelak ere epoka hartakuak dia. Gero, Pako Juaristi zanakin dana euskeraz eitxia pentsau gendun, eta holaxe jardun gendun.

- Non antzezten zenuten?

- Oin merkatu plazia dauan tokixan, sakristixan, Elgoibarres zinian. Bilboko Arriagara ere jun ginan eta sarrera guztixak saldu ziazen.

Eta zein zen helburua?

- Beti benefizientziarako ematen gendun jasotako dirua. Behin akordatzen naiz zela Mutrikuko arrantzale batzuk galdu ziazen eta haien familientzat ere eman gendun zeoze. Sekula ez genduan guretzat hartzen diru haura, akaso beti kafetxo bat edo hartzen gen-

duan baina orduan ere demaseko juergia itxen genduan.

- Eta entsaiatzeko?

- Hemen, Gabi tabernian goixan, lehenengo pisuan zauan lokala zan "de las JONS" eta hantxe eitxen genduzen gure entsaivak. Harek izaten ziazen entsaivak! Barre ugari itxen genduan!

- Nola banatzen zenuten lana?

- Pakok esaten zaban bakoitzak ze personaje ingo zaban antzerki bakoitzian. Dimas Gil artistia zan pintxatzen eta berak eitxen zitxun gure dekoratu guztixak, bera bakar-bakarrrik moldatzen zan ondo baino hobeto.

- Eta arropak?

- Ene! Hantxe ibiltzen ginan, aber herrixan zeinek zakan erropa politxa eta aproposa eta haretxeri eskatzen genion antzerkixa eitxeko. Zapatak ere, haretxek dakaz politxak eta haretxeri eskatu. Ostantzian, puntillak eta sonbre-ruak, arregluak eta holakuak eitxen Claudia Lezea modistiak laguntzen zigun.



- Zarzuelarik ere egin zenituzten.

- Bai, lehenengo "El caserio" in zan. Nik ez naban parte hartu, baina demaseko arrakastia euki zaban, asko gustau zan. Gehixau ere in ziazen. Nik "Los claveles" izeneko zarzuelan hartu naban parte.

- Zein tipotako obrak antzezten zenituzten?

- Komikuak, barre itxekuak izaten ziazen. Jose Juaristi ere artistia zan, haura eta Itziar Ajuria eszenarixora urten orduko jendia barrezka hasten zan. Don Tomas medikua danetara juaten zan eta behin hain barre haundixak ein zitxun sillan jarritxa zauala, jata atzerazka jausi zala.

-Eszenatokian esaldiren bat ahaztu ezkerro?

- "Ramuntxo " egin genduanian nik nakan papel gehixena, Ramuntxon ama nintzan. Eta momentu batian ahaztu egin jatan. Eskerrak Angel Iriondo nere orduan zauan, harek papel guztixak ikasten zitxunez berak baju baju esaten zian zer esan bihar naban nik. Oso inportantia da horregatik apuntadore ona egotia, hortan oso onak ziazen Manolo Rementeria eta Miren Vallejo.



eri Charlston Heston-ekin Ian eitxia gustauko jatan.

CINGIZATE SAILA:

Karitatea zena eskubide bihurtio da

Historian zehar atzera egiten badugu, monjen artean aurkituko dugu gaur egun Ongizate Saila bezala ezagutzen dugun horren jatorria. Garai batean asistentzia modura edo sortu zen, jendeak zituen beharrei erantzuteko, diru beharra zutenei laguntza bat eman asmoz, janaria, arropa edo ahal zen bezala. Oraindik ere funtsean

filosofia berdina bada ere, dagoeneko ez da asistentzia hutsera mugatzen, izena bera ere aldatu baita; lehen giza laguntzaileak zirenak, gaur egun giza langileak dira. Borondate onez egiten ziren ekintza haiek, lan bilakatu dira. Eta karitatea baino gehiago, pertsona orok dituen eskubideak asetzea da eginkizuna.

Elgoibarko Udaletxeko Ongizate Saila hiru departamentutan banatzen da, guztiak koordinaturik egon arren, eta sail bereko sustaiak izan arren, bakoitzak bere funtzioak baititu.

Lehenengo departamentua informazioaz, balorazioaz eta orientazioaz arduratzen da. Teknikariak, heltzen diren eskerra guztiak jasotzen ditu, horiek baloratu eta bakoitzari dagokion tratamendua egokitzen dio.

Bigarrenik "Familia eta elkarbizitza" deritzana dago, izenak dioen bezala familietan ematen diren arazoei konponbide bat emateko, besteak beste. Hona kasu zehatzagoak bidaltzen dira lehenengo departamentutik.

Hirugarrena "prebentzioa eta reinsertzioa" da. Hemen programa eta ikastaro bereziak prestatzeaz arduratzen dira. Drogomenpekotasun arazoak ere departamentu honetatik bideratzen dira.

Oraindik ere jende asko dago Ongizate Saila zer den ez dakiena. Halere, poliki poliki gero eta pertsona gehiago hurbiltzen da. Aspaldian enpresa asko itxi behar direla eta, hainbat familia joan da informazio bila, lanik gabe gertuz gero dauden aukerak ezagutu asmoz.

Hirugarren adinari dagokionean, informazio orokorraz gain, bestelako zerbitzuak ere eskain-



Amaiak, Amagoiak, Loreak eta Katik osatzen dute Ongizate Saila.

tzen dira, horietako asko Gurutze Gorriarekin elkarlanean, hala nola, etxez-etxeke zerbitzua edota tele-alarma.

Proiektu berri bat

Hilean behin herri ezberdinetako Ongizate Saileko teknikariak bailaraka biltzen dira. Bileretara Aldundiko ordezkari bat ere joaten da. Denen artean arazo ezberdinak eztabaidatu eta irtenbideak topatzen saiatzen dira, proiektuak ere elkarrekin gauzatzen...

Deba, Plaentxi, Mendaro, Mutriku eta Elgoibarko Udala bi ikastaroz osaturiko proiektu bat martxan jartzekotan dira, ahal bezain laster.

Batetik, "Familia mailako trebetasun soziala" izeneko ikasta-

roa dago. Honen bidez, hala behar duten familiei etxeko ekonomia nola eraman behar den irakasten zaie, besteak beste.

Bigarren ikastaroa "Lan mundura zuzendutako trebetasun soziala" deritzana da. Ikastaroan, kurrikulum bat nola egin behar den azalduko zaie, lan elkarrizketa batera nola joan behar diren, nola jokatu behar duten egoera jakinen aurrean... Hitz batean, INEMek eta antzekoek antolatzen dituzten prestakuntza ikastarotarako aurre-prestakuntza ikastaroa da.

Azken finean, eurak esan bezala, "gure desioa, hona etortzen direnak egunen batean euren kontura bizitzeko gai direla ikustea da".

Udako arriskuak hirugarren adinean

U dara garaian hainbat eta hainbat patologia area-gotu egiten dira, hala noia, digestioarekin, azal kontuekin bai eta begiekin ere nolabaiteko zerikusirik duten guzti horiek. Kontuan izan behar da, gainera, populazioaren gehiengoak oporretara joaten dela eta ohiturak aldatzen direla.

Hasteko eguzkiaren gaiari helduko diogu. Batetik, efektu fotobiologikoak onuragarriak izan daitezke D bitamina dela eta. Halere, egon daitezke ondorio txarrak ere, hor daukagu, esate baterako, erredurak edota azalean sortzen diren beste hainbat arazo ere. Horregatik, eguzkia beti protekzio altuko krenak erabiliz hartzea komeni da eta goizean goizeko edota arratsaldeko azken orduak dira aproposenak. Ahal den neurrian eguerdi partea ekidin behar da.

Esan dugun hau betetzen duenak beroaren eraginez sor daitezkeen bestelako gaitzak ere ebitatu ditzake. Kontuan izan behar da haurrak eta hirugarren adina direla termarregulatzaile sistematik ahulena dutenak.



MARIA JESUS ARZUAGA,
MEDIKUA

Janariak ere garrantzi handia dauka eta zaindu beharra dago. Ez da berria udaran behar kasuak ugaritzen direla. Horregatik, edozer jan baino lehenago dena behar bezala garbitzea komeni da, uraz ezezik baita lehia tanta batekin ere, batez ere jakiak gordinik jan behar direnean, egosi gabeko.

Aipagarriak dira, bereziki, arraultzea eta maionesa. Malonesa etxean egiten denetan hozkailuan gorde behar da beti, eta ahal den neurrian 24 ordu pasa aurretik kontsumitu.

Dena dela, udak badauzka bere alde onak ere. Maria behean dagoenean ez dago gauza hobeagorik itsas ertzean pasiaratxo bat ematea baino. Batez ere eguraldi ona egiten duenean... egiten badu.

(Erredakzioan itzulia)



REDONDOA SALTSAN



41 nouvlus911

OSAGAIK

(8 pertsonantzat):

Bi kilo redondo, kipula, azenarria, piper berdea, porrua, berakatzak, txanpinoiak, olioia eta gatzak.

PRESTAKETA:

Lehenengo haragia gorritu behar da oliotan, poliki-poliki. Ondo gorrituta dagoenian botatzen diozu kipula, azenarria, piperra, porrua, txanpinoiak... osagarri guztiak. Danak bertara, kazuelara bota behar dira, dexente gainera, kantidadeharikua. Guztia egosten lagatzen da eta ur piska bat behar bada ardo zuria eta koñak piska bat botatzen jako gaintetik. Eta egosten segi, hiruzpalau ordu behar ditu tamainan egosteko. Bere puntu dagoenian, haragia ezik gainontzeko guztia pasapure batetik pasatzen da. Pausu hauek bezperan egitea komeni da, prozesu luzea da eta. Jateko, reondoari sokak moztu jakoz, tajadak egiten dira, platerian jarri eta gaintetik bezperan egindako purea bota, saltsa bezela. Mahaian jarri eta on egin!

11Psus, Mari Etxeberria Funerariakoa

**Noiztik langintza honetan?**

Hamahiru urterekin hasi nintzan. Negoziva, berriz, aitzak ipini zaban.

Nola ikusita dago zuen lanbidea?

I Ondo, kalera bajatzen geranian 'kotio, el fune!' esan eta demaseko katxondeua sortzen da.

Zenbat hiltzen dira urtean Elgoibarren?

I Larogeita hamar, gutxigorabehera.

Zenbat balio du hilkutxa merkeenak eta garestienak?

Merkiena 55.000 pezetakua daukagu. Karuena, berriz, 300.000 pezeta pasa.

Gelditu al da inor hilkutxa ordaindu ezinik?

Ez, negozio honetan 'kobro seguro' izaten da.

Beraz, negozio segurua eta ona?

I Sartutako ordu kopurua eta diru irabaziak baloratu ezker, ez.

Pena gehien eman dizun heriotza? **I** Pena etxekuen negarrak ematen dit. Inpotentziak dakarren negarrak.

Ematen al dizu beldurrik heriotzak? **I** Ez, heriotzak ez dauka bueltarik. Minez bizitziak ematen dit bildurra.

Norbaitengatik bizia emateko prest? **I** Elegantia baietz erantzutia izango zan. Arriskatzeko prest nago baina 'hilkio naiz zure partez', ez nioke inori esango... zeini?.

Hilkutxan sartu duzun pertsonarik gazteena eta zaharrena?

Jaioberriak sartu ditut eta baita ehun eta hiru urteko laupabost lagun ere.

Zer dago hil eta gero? **I** Askori esan diuet tarjeta bat bialtzeko, baina mornentuz ez dot erantzunik jaso.

Zer da zerua? **I** Norberaren kontzientzia garbi edukita hiltzia.

Noizko eskelak euskaraz? Jendiak eskatzen dituenian. Ni bietara egitearen aldekoa naiz.

Bukatzeko, kontatu anekdotaren bat.

Behin, anaixa (Julian) eta bixok hildako bat kajan sartzera jun ginan. Sartzarakuan 'benga Julian, barrura' esan nion. Kasualidadez hildakuak ere Julian zaukan izena. Hildakuari berbetan hasi ete nintzan pentsau zebeu familixakuek.

IMANOL LARRAÑAGA

KRISIAN... KOMERIAK

DOINUA:

Proporzio bat (hamarreko handian

Aitaren ordu extreko mantentzen naute ni langabezian

nire lan ezak mantentzen bera(lanean egun guztian.

Nor dabil zuzen, nor ote oker bion arteko auzian?

Bi marioneta ezberdin gara haserre lehia bizian

berak egunez irabazi ta nik gastatzen dut musian.

Alkohol usainez aho lurruna gorputz osoan balantza goizean goizik lo egiten dut gauerdia partera dantza.

Ez dugu giro etxe aldean gogoa dut kanporantza diru ezean hemen naiz baina ez dut galdu esperantza Maroko aldera buelta eginez - ken ei dezaket arantza.



ASIER ETXANIZ



DEBA KALEA 12

!reformak, S.J. 20870 ELGOIBAR

ERREF RMAK

FATXADAK ETA TEILATUAK

OBRAK OROKORREAN

Az, 94, 14., z4

ETXEBERRIA Ahizpak

Santa Ana, 1

Tel. 74 01 40 ELGOIBAR

Alderch abertzaleek behera egin dute Europar Legebiltzarrerako Hauteskundeetan

gandean, ekainak 12, izan ziren Europar Parlamenturako hauteskundeak. Badirudi askori Europa hitza urruti samar gertzen zaiola, edo apenas duela erakargarritasunik. Hala isladatzen da, behintzat, botua ematera joan zen kopurua etxean geratu zirenekin alderatzen badugu. Hau da, domekako hauteskundeetan Elgoibarren botoa emateko adinean dauden guztien arteatik ia erdiak ez zuen bozketan parte hartu, %42,68ko absentszia egon zen eta. Europar Par-

lementurako azkenengo hauteskundeak 1989an izan ziren, orduan absentszio maila bajuagoa izan zen, %34,88a, hain zuzen ere.

Aipagarria da aurtengoan alderdi politiko espainiarrek izan duten gorakada, Euskal herrian ezezik, baita Elgoibarren bertan ere. PSE 909 izatetik 753ra jeitsi den arren, Alderdi Popularrak (PP), esaterako, 566 botu lortu ditu aurten, 89an, berriz, 167 soilik. Ezker Batuak (IU) ere izan du gorakada nabarmena, 64tik 384 botu izatera pasatu da.

Hauen aurrean, abertzaleek beherakada dexente inportantea jasan dute. EAJ-PNV izan da botu gehikuntza bat izan duen bakarra, 1764tik 1908ra hain zuzen ere. Gainontzean, HBk 954 botu lortu ditu aurtengoan, 89an baino 288 gutxiago eta EAK 89an 1087 lortu bazituen aurten 608 baino ez ditu jaso.

Orotara, 173 pertsonak eman zioten botua aipatu ez ditugun beste alderdi batzuei. Ruiz Mateosek, adibidez, bost bat pertsonen botua jaso zuen Elgoibarren.



	EAJ/PNV		HB		EA		PSOE		PP		IU	
	89	94	89	94	89	94	89	94	89	94	89	94
Plaza Txikia		680		391		260		262		216		138
P. Muguruza		293		160		76		172		148		87
Urasandi		166		128		44		150		69		65
San Roke		384		128		141		101		88		59
Altzola		50		46		6		20		12		13
Santa Klara		112		29		15		4		5		1
Zaharren Biltolda		223		72		66		44		28		15
GUZTIRA	1.764	1.908	1.242	954	1.087	608	909	753	167	566	64	384

Ven a la ruta del euskara

**Z,3,4 eta 5 orduko klaseak
MAILA GUZTEAK ETA EGA
Matrikula epea: Ekainak 24**

ae euskaltegia
Plaza Txikia, 3
7 74 13 32

**HERRI-GAIN
ERRETEGIA**

San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

San Lorentzo ermita

▪ San Lorentzo, angeluzuzen oinplanoa, nabe bakarra eta isuri biko teilatua duen elizatzkoa da.

n Eraikuntza harmora sendoez sostengatzen da. Beheko bi alboetan, ertaroko binagezileiho txaranbeldu daude, urte asko estalita egon eta gero azkenengo berritze lanetan ireki zituztenak. Ezkerreko hormaren goi aldean lau leiho dinteldun ikus daitezke, hauek berriagoak izanik.

▪ Sarrera, kararrizko ataburu batez asatua dago kanpotik. Barrutik, arku karpnel bat du, atezangoko eta arkuko kararrizko tamainu berdineko dobelez eraikia.

Kanpoko sarreroko horman, ezker-eskubi, ur bedeinkatua gordetzen duten ontzi bana daude. Ontzi hauen gainean, ediebean landutako bi gurutzetxo daude.

□ Horman, baita ere, oinazpiko bat dago, ezker aldean. Dirudienez, Gorpuzti garaian San Lorentzoren irudia Parrokiara eraman eta ekartzen zutenean, bertan pausatzen omen zen zenbait otoitz egin bitartean.

Presbiterioa nabea baino zertxobait gorago kokatzen da, hiru harmoil igo behar direlarik. Hemen, harrizko aldarea eta irakurketak egiteko anbaia daude. Atzean sagrarioa kokatzen da.


Absideko hormak balio historiko handia du eta fau garaitako margook aurkitu berri dituzte.

Ej Absidearen erdi aldean, horman zintzilik, gurutze bat dago, iltzeaz josiriko Kristo batez. Presbiterioaren eskubi aldeko mahaixto batean San Lorentzo zaindariaren irudia dago.

□ Koroa egurrezkoa da eta bi pilaretan sostengatzen da. Eskubiko pilarean, egurrezko apaingarri bat ikus daiteke eta bertan, baita ere, ur bedeinkatua gordetzeko balio duen ontzia dago, Korotik, kanpandorrera igotzen da.

gg Zoluko erdiko eta alboetako korridoreak, nabearen aurreko aldea eta sarrera harbelezko lauzez estaliak daude. Gainontzeko espazioa baldosa gorriskaz. Presbiterioko alfonbraren azpian baldosa zaharro mantentzen da. Antza denez, erdiko korridoreko hadauzak "Garagartza errota" baserritik ekarri ziren.

PELLO ARRIETA



Jose Muruamendiaraz

Pasteleroa (1911-1987)



Jose Muruamendiaraz Elosun jaio zen 1911. urteko apirilaren 25ean. O Lehen gozotegia San Frantziskoko 2. zenbakian ireki zuen, gaur egun Ortueta zapatadenda dagoen lekuan. O San Frantzisko kaleko lokala istean beste bat zabaldu zuen aurreraxeago, San Bartolome kaleko 34. zenbakian, gaurrengungo obradorea dagoen lekuan. Gozotegiaz gain, janaridenda ere bazen.

Elgoibartar askok gogoratuko du Jose, Plaza Txikian kafea erretzen.

O Pasteigintzan maisua zen. Bere berezitasunak "rellenoak" eta Bergarako tostoiak ziren.

O "Murua" gozotegiaren entzutea Elgoibartik kanpora hedatu da, urteetan gozogintzan dotore jardutearen poderioz.

Zortzi seme-alaba izan zituen. Bere jakintza seme-alabei irakatsiz, gaurregun berauek dira negozioa daramatenak.

1987ko azaroaren 30ean hil zen.

(Beharrezkoa, borondatezkoa, defentsa eta rekramazioa, bidaiariak, Okm.tik asistentzia)

rambarri

f ASEGURU AHOLKULARIA

Errosario-San Bartolome trabesia
San Bartolome 15 behea
Tel-Fax: (943) 74 30 37
ELGO1BAR

TERCEROS	Ford Fiesta 1.1 Opel Corsa 1.0 Renault 5 GTL eta antzerakoak	Seat Ibiza XL 1.2 Opel Astra 1.41 GL Peugeot 205 SRD eta antzerakoak	Renault 19 GTX Citroen ZX 1.9 Avant Peugeot 405 GL eta antzerakoak
Urteko prima			
25-29 urte bitartean 2 urte karnetarekin	55.008	57.280	65.820
30-65 urte bitartean 2 urte karnetarekin	50.276	52.321	60.007

EIA

Udako kanpainarako izena emateko epea, zabalik

Elgoibarko Udai Kirol Zerbitzuak urtero burutzen duen kirol kanpainarako izena emateko epea hil honen 21ean bukatzen da. Nagusientzako zazpi kirol iharduera ezberdin egongo dira eta haurrentzat, beste zazpi. Eskalada, patinak, fitness, buzea, parapentea, tenisa, gimnasia ritmiko deportiboa eta astebukaeretakoa irteerak izango dira uda honetarako Udalak prestaturiko kirol iharduerak. Uztailaren 15, 16 eta 17an, Urbasa zaldiz ezagutzeko irteera egingo da. Irailean, berriz, Ebroko ibaian raftina egin eta Guarako ibaiak jeisteko aukera izango da. Izena emateko Kirol Zerbitzura jo, goizez 11etatik lera bitartean, edo 74 44 15 zenbakira deitu.

Eskubaloiko eskualde mailako partiduak

Elgoibar Kirol Elkarteko Eskubaloi taldeko infantil nesken ekipoak eskualde mallako partiduak jokatuko ditu. Elgoibartarrek Deba Beheko ekipoaren izenean jokatuko dute. Lehen topaketa herrian bertan izango dute. Larunbat honetan, hilak 18, hiru partidu jokatu dira Kiroldegian. Lehena goizeko 10etan izango da. Irunaldeko neskek Deba Garaikoen aurka jokatuko dute. 11etan Urola Kostako eta Donostialdeko nesken txanda izango da eta, 12etan Deba Behekoek eta Andoain aldekoek jokatuko dute.



Aingeru Osoro:

"Txikitatik gustatu zait igeri egitea"

1 Aingeru, noiz hasi zinen igeriketan? - Orain dela bi urte edo bi urte t'erdi hasi nintzan.

1 Zerk bultzatuta hasi zinen? - Txiki txikitatik igeri egitea gustatzen zitzaidan. Hondartzan beti nengoen uretan.

Orain Kiroldegiko taldean al zaude? - Bai, Olaizaga Igeriketa Eskola deitzen da.

Zer nolako lasterketetan aritzen zara? "Estikis" deitzen dena. Batzuetan estilo bakar batean igeri egin behar izaten dogu. Estilos tzen den lasterketan lau estiloetan igeri egin behar da: mariposa, atzerazka, kroll eta braza. Orain dela bi edo hiru aste Irunen euki gendun estilo txapelketa bat. Goizez egin behar izan genuen estilo bakoitzean 50 metro. Goizean mariposa eta atzerazka egin gendun eta arratsaldean braza eta kroll.

1 Zein da gehien gustatzen zaizun estiloa? - Mariposa. Ez dakit zergatik. Errez urtetzen zait. Estilo bakoitza ezberdina da. Segun eta zer estilo, besoak modu batera edo bestera mugitu behar dira. Guztien artetik mariposa da hoheetuen urtetzen jatana. Igual horregatik gustatzen jata gehien.

-11 Zenbat entrenatzen duzue?

Astean hiru aldiz juten gera. Norma-



lian 1200 metro egiten degu. Orain estiloak perfektionatzen ari gera. Defektoak ikusi ditugu eta hobetzeko saiatzen ari gera.

1 Bukatu al duzue denboraldia?

Bai. Seguruen abendura arte ez degu txapelketarik eukiko.

1 Eta udan zer? - Kiroldegira juten jarraituko det. Bueno, hondartzara ere jungo naiz.

1 Beste kirolik egiten al duzu?

- Bai, karatea. Kirol pilo bat egiten dot: udan eskalada eta buzea eta eskolarteko jokuetan eskubaloia, saskibaloia eta futhittoa.

1 Eta gehien zein gustatzen zaizu? Gehien igeriketa.

1 Itsas azpian ibili al zara?

- Oraindik ez gara itsasora jun, udan itsaso txarra egoten dalako. Dana mugituta egoten da eta ez da ezer ikusten. Gustauko jatan baina bildur

piska bat ematen dit, orain Deban marrazoak dabizelako, tiburoi txikixak dia.

1 Itsasoaren erdian bazeunde, helduko al zinateke kostaldera?

- Bai, ondo defendituko nintzan.

- Adina: 10
- Mendia ala itsasoa? Itsasoa.
- Arraina izatea gustatuko litzazuke? Bai.
- Gogoko janari bat? Arroza tomatearekin.

P440 99 — 7/teacm' Scitaxeivria

AROTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA

Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68

Andoni Tellabide S,L,

- Berogailuak
- Suteen aurkako instalakuntzak
- Gas instalakuntzak

INTERIORES,

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Ereosarin 15 Behea.

Herritarrak martxan jarriko ditu Nahaste Borrás eak

Aurten Nahaste Borrastearen zazpigarren edizioa burutuko da Kimetz elkartearen eskutik. Bi lasterketa izango dira: bata, 10 urtetik 14 urtera bitartekoentzat. Hauek Kimetz elkartetik aterako dira arratsaldeko 7etan. Bigarrena, 7,30ak aldera hasiko da Plaza Handian eta 14 urtetik gorakoek har dezakete parte.

Lehen lasterketan bi kategoria izango dira: alebinak eta infantilak. Hauek 4,8 km egingo dituzte bizikletaz, kilometro erdi 10 kiloko zakua bizkarrean eta, bukatzeko, kilometro bat saltaka. Bigarren lasterketaren ibilbidea luzeagoa da. Lehendabizi 7,2 km egingo dituzte bizikletaz, kilometro erdi 25 kiloko zakuarekin eta 1,4 km saltaka. Emakumezkoek ibilbide berbera burutu beharko dute, 25 kiloko zakua ordez 15 kiloko eramango dutelarik. Kimetz elkarteak herriko emakumeak animatu nahi ditu lasterketan parte har dezaten. Dorsalak lasterketa egunean jasoko dira Kimetz elkartearen arratsaldeko 6etan. Ondoren afaria egingo da elkartearen, partehartzaile guztien artean.



- E Nahaste-Borrastearen herritarrek parte hartzea da garrantzitsua.

Segurtasun neurriak

Azken urteotako partaidetza handia izan denez, esfortzu berezia egin du aurten Kimetz elkarteak segurtasun neurrien atalean. Batetik, kaskoaren erabilera derrigorrezkoa izango da bizikleta frogan. Bestetik, Udaltzaingoak bidegurutzeak zainduko ditu eta puntu txarrenetan laguntzaileak egongo dira. Gurutze Gorria ere bertan izango da eta balla eta zinten bidez markatuko da ibilbidea. Azkenik herriko denda eta enpresei eskerrak luzatu nahi dizkie Kimetz elkarteak eta bereziki Udalari, emandako diru laguntzagatik. Haia ere, kritika txiki bat helarazi nahi diete Udaletxeko agintariei, aurten emandako diru laguntza ia zkoa baino txikiagoa izan delako.


"Luistarrentzako" lasterketa

Nahaste Borraste lasterketa 1947. urtean egin zen lehendabizikoz. Oñatiarra izatez baina Elgoibarren bizi zen Jose Maria Agirrebalzategi apaiza izan zen sortzaile eta antolatzaile. Helburua, "Luistarren" lagundiko gazteek parte hartzea. Horregatik, San Luis egunean (ekainak 21) ospatu ohi zen lasterketa.

Gaurreguneko ibilbidea erreferentzi modura hartuta, lehen urteetan atzekoz aurrera egiten zen lasterketa: hau da, lehenengo korrika, gero



zakua eta azkenik bizikleta. Foruen Plazan hasten ziren lasterkariak, Maalaraino heldu eta Azoka Plazan 25 kiloko zakuari heltzen zioten. Plazatik berriro azokaraino eta, han bizikleta hartuta, kale eta auzoetatik egiten zuten buelta. Irabazlea Jose Garitagoitia "Basueta" izan zen, sari modura 100 pta. eman zitzaizlarik. Bigarren Felix Etxeberria "Parapan" izan zen eta saria, 75 pta. eta ogi opil bat. Hortik dator nagusien artean ezaguna den "Un pan para Parapan" esaera. Hiru urte segidan burutu zen Nahaste Borrastea, 36 urteko tartearren ondoren, Kimetz elkarteak 1988. urtean berreskuratu zuen arte.



Gardeazabal, eskaladan txapelaldun

Joan den astebukaeran Mor-
kaiko Mendizale Elkartek
Kiroldegiko rokodromoan
antolatutako Euskadiko
Eskalada Txapelketako irabazlea,
Gotzon Gardeazabal bilbotarra
izan zen. Goizeko kanporaketan,
17 eskalatzaile aritu ziren gizo-
nezkoen atalean, eta 5 eskalatzaile
emakumezkoetan. Patxi Arozena,
Txema Gomez, Carlos Garcia eta
Carles Brascdk osatu zuten epai-
mahaia eta beraiek izan zuten
rokodromoko bideak markatzeko
ardura. Arratsaldeko finalerako
sailkatu zirenen arteko lehia gogo-
rra izan zen. Faboritoeak, Gotzon
Gardeazabalek eta David Carrete-
rok, bigarren igoaldia burutu
behar izan zuten bien artean ira-
bazlea atera zedin. Azkenik, Go-
tzon Gardeazabal bilbotarrak ira-
bazi zuen. Gardeazabalek, Euska-
diko txapelketako bigarren froga
irabazi eta gero, iazko titulua
berreskuratzeko aukera handiak
dauzka. Hirugarren Fernando
Martinez geratu zen.

Emakumezkoetan, Josune
Bereziartuak erraz lortu zuen
garaipena. Bea Jimenezek Bilboko



■ 1 Argazkian, sari banatzaileak tente, eta makurtuta, eskalatzaileak.

txapelketan bere aurretik geratzea
lortu zuen arren, Elgoibarren hiru-
garren postua baino ez zuen esku-
ratu. Bigarren sailkatua Leire Agi-
rre azpeitiarra izan zen.

Gaueko saioa

Gau partera, Elgoibarren
lehen aldiz antolatu den bizkorta-
sun froga burutu zen. Rokodromo-
ko ormak bizkorren igo zituen
eskalatzailea Haritz Menika izan
zen. Atzetik J.A. Mulas sailkatu

zen, hirugarren Rikardo Otegi eta
laugarren Iker Arroitauregi.
Jarrian, sariak banatu ziren eta
ondoren, Patxi Arozena, Txema
Gomez, David Garcia eta Carles
Brasco eskalatzaile ezagunek
dantza eskalada saioari hasera
eman zioten. Ikuskizunak ez zuen
iazko maila izan, baina ikuslegoak
txaloen bidez eskalatzaileen
esfortzua eskertzen jakin izan
zuen.

KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROIL IFLASHAK

Elgoibartarrak, Frantziako Pirinioetan bizikletan

Erretratuan azaltzen direnak
Elgoibarko kale bazterrak Iaga eta
Frantziako Pirinioetara joan ziren
bizikletak hartuta pasa den
astebukaeran. Larunbata eta igandea
aprobetxatuz Peyresoutre, Aspin,
Tourmalet eta Aubisque igo zituzten
forma onean daudela erakutsiz.
Indurain eta konpainiak igotzen dutena
igotzeko gauza badirela erakutsi dute,
nahiz eta abiadura ez zen berdina
izango.



Trikithlari eskolako jaadia Herriko Antzokian

Hilaren 24an, ostirala, gaueko 9,30etan hasiko da Trikitilari Eskolako ikasle eta irakasleen kurtso bukaerako jaialdia. Aurten ez ohizko tokian ospatuko da ekitaldia: Herriko Antzokian, orain arte, Kiroldegian burutu izan baita. Kurtso osoan zehar soinua eta panderoa ikasten jardun duten 84 ikaslek, era guztietako piezak joko dituzte, arin-arinak, fandangoak, porrusaldak... Soinua jotzen 35 haur arituko dira eta panderoarekin 40 bat lagun. Trikitilariak joko dituzten piezen artetik, zenbait dantzarako piezak direnez, Haritz Dantzari taldeko zenbait kidek, dantza egingo dute trikitiaren soinu eta panderoaren erritmo bizia-ri jarraituz. Taldean aritu ondoren honoko bikoteek jardungo dute: Oihane Valenciano eta Aitziber Larrañaga, Oier eta Arkaitz Balzola,



III Trikitiak gora egin du gure herrian azken urteotan.

Unai eta Ane Larreategi, Joseba eta Gorka Mir eta Ane Larreategi eta Nere Aranbarri. Trikitilari Eskolako irakasleak Lourdes Alkorta eta aurtengo trikitilari txapelketako irabaz-

lea izan den Xabier Alberdi "Zabale" trikitilariak dira. Jaialdia gaueko 9,30etan hasiko da Herriko Antzokian.

11
KENSINGTON

Pedro Muguruza 8. ELGOIBAR TEL- FAX 7 4 0 2 3 6



GIPUZKOAKO
111ZKUNTZ IRAKASLE
ELKARTEKO BAZKIDE

UZTAILEAN GOGOR EGIN INGELESA ETA FRANTSESARI

Matriikulazio epea zabalik daukazu

UDARA. HONETAKO ZORA.MENA!!

MAILAK:

1. mailatik (oinarrizkoa) 11. mailara (aurreratua Sarrerako azterketaren arabera.

TALDEAK:

- Mintzamen praktikak
- Kanpo komertzioa
- Itzulpena (bi hizkuntzetara)
- Literatura, Errekuperazioak,
- Oinarrizko mailak hourrentzat.

IRAMPENA:

A - Ordu bete egunero (22 ordu)

B - Bi ordu egunero (44 ordu)

ADINA: Adin guztiak.



P. E.T. centre ES 406

Seueiteld ordiea,

Oztopo lasterketa masifikatu honen azken jauziaren atarian aurkitzen gara, hanka dardarti eta ikaratuek ezin dituzte eutsi gure garun barrean aurkitzen diren neurona ustelak.

Azken lau urteetan pasatu ahal izan ditugun oztopo guztiak hutsean geldituko dira hamabi ordutan gure oroimenak saltzen bagaitu. Ordu hauetan laprast eginez gero, uda osoa liburu artean pasatzera kondenatuak izango gara, orain arteko esfortzu guztiak hutsean geldituz. Goizean jaiki eta egun argi batek egunon esaten badigu gure bizitzako etapa berri bati ongiatorria emango diogu.

Aurten, urtero bezala, esterminio kanpoak zabalduko dira eta tribunalak bere gas kamarak zabalduko ditu.

Garraisi isilen artean bakoi-tzak bere ganbarako kutxak zabalduko ditu ohial lizunduak leundu eta ametsetan hasteko:



• Azterketa garaian errepikatzen den irudia: ikaslea liburuen aurrean.

"Arriba el galliner0000!!! Stalin-ek Vodka edalontzi bat eskuan duarik Iehenengo kinua Carnien Martin Gaite-ri eskaintzen dio eta honek mespretxu eginez, Hitler-ekin jarraitzen du zirrika. Plo Barojak bakardadeaz gozaten duen bitartean, Platon bere elkarrizketa sokratikoen bidez Nefertiti iilurutzen saiatzen da. Celaren erlauntzatik ateratako

erleek ez diote Otto Von Bismarcki bere sistemak aurrera eramaten uzten... XIX. eta XX. mendeko historiak eta XX. mendeko literaturak topagune izan dute Keops-eko piramidean.

Ikusi makusi, zer ikusi? S-z hasi eta A-z bukatzen den gauzato bat.

UBIKO IKASLEA K

11411414.1, 04~¹1444 141. (24441141: ialltyp~~~.



Mirari Osoro, Batxiler Institutuko 2. BBBko ikaslea, TVEleko Miguel De la Cuadra Saleedoren "Ruta del Quetzal" programan izango da. Mirarik, Institutuko beste ikasle mordo batek bezala "Ruta del Quetzari buruzko maketa bat egin zuen, "ur natural eta guzti", eta programara bidali zuen, "ea zorterik zegoen". Mirarien maketa hautatuen artean zegoenez, programan parte hartzeko aukera izango du. Izan ere, grabazioa Sevillan izango da eta uztailean ikusi ahal izango dugu Mirari De la Cuadraren programan bi froga burutzen: bata kulturala izango da eta bestea, kirol froga. Irabaziz gero, Antazoniara bidaia egingo du Mirarik, "La Mision" pelikulan agertzen den ruta berbera egitera, "Ruta del Quetzal" deritzona, alegia. Zorte on Mirari!



OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak **461111**
 Txanda hartzeko **743354**
 Alkoholiko Anonimoak **740385**
 D.Y.A (anbuiantzia) **464622**
 Gurutze Gorria **743864**
 Mendaroko Ospitala **756264**
 Drogomenpekotasun Z **741008**
 Odol Emailak **743936**

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
PESA (Eibar) 112131
Taxi Geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua **744366**
 Kirol Zerbitzua **742158**
 Kultura Zerbitzua **742158**
 Mendaroko Udala **756100**
 Ongizate zerbitzua **743736**
 Udaletxea **741050**
 Udaltzaingoa **741394**

BESTELAKOAK

Caritas **740142**
 IMI **741196**
 Kontsumo Bulegoa **743088**
 Liburutegia **743525**
 Musika Eskola **742145**
 Minixeta **744315**
 Polikiroldegia **741301**
 Postetxea **741547**

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza ... 740296
Zaharren Biltokia 740526

I KASTETXEAK

Herri eskola **740879**
744132
 Institutua **740267**
 Ikastola **744441**
 L.H.I **744480**
 Pilar Ikastetxea **741331**

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 744112
 El Diario Vasco **744073**
 El Mundo **118505**
742267
 El Correo Español, **741082**
Egin 118421
Deia 741157

Bestelakoak

YAMAHA TZR 80 bat saltzeko daukat. SS-AB
u• 74 41 12 Nekane

FORD ESCORT GORRIA SALTZEN DUT. SS 0883 AJ
tr 74 15 24

GARAJE BAT SALTZEN DA pista beltzean. Prezio egokia
 74 74 08 79 Julian

Joan den larunbat eta igandean BI GILTZ ETA TXAKETA BAT aurkitu ziren Herriko Antzokian.
8• 74 24 48

Larruzko Ilabero batekin HIRU GILTZ GALDU DITUT. King-kongetik gabira bitartean
 74 02 19

Haurren goiko parteko TXANDAL berde ilun bat GALDU DUT.
zi• 74 21 64

Bigarren eskuko fRIGORIFIKO BAT BEHAR DUT, Deitu 10etatik I 2etara.
Tr 7406 64Nekane

BELARRITAKO BAT aurkitu nuen joan den ostiralean, hilak 3, Ametsa taberna aurrean. Zilarrezko aro bat da eta ondoan zerbit biribila dauka.
tr 74 36 80 Asier. 6etatik aurrera deitu.

HAUR TXAMARRA BERDE BAT daukagu hilaren Sean San Pedron jasota.
z• 74 16 26
 Elgoibarko Izarra



FRANTSES KLASE INTENTSIBOAK ematen ditut. Uztailean zehar.
Zr 74 04 59 Jacqueline.
 8etatik aurrera deitu.

Klase partikularrak ematen ditut, Matematikak, kosteak eta kontabilitatea orokorrean. Ekainean eta uztailean.
Tr 74 21 65 Jabi

31 urteko neska etxeko lanak, umeak zaindu, garbiketa lanak eta antzerako lanak egiteko prest dago.
n• 17 17 40

LOGELA BAT DAUKAT ALOKATZEKO. Erropak ere garbitzen ditut.
1r 74 24 06

PISU BAT daukat alokatzeko ALCOCEBER-en (Castellon). Uztailean.
Ir 74 21 86 Maria

PISU BAT daukat salgai Ermuaranhiden.
17 74 27 12

ETXE BAT SALTZEN dugu Pedro Muguruzan. Egoera osc) onean eta guztiz amueblatua. Bigarren pisua.
a 74 08 57

BUNGALOW BAT ALOKATZEN DUT Santa Polako handartzako lehen ilaran. Ekaina, uztailea, iraila.
ra• 74 27 02 Ana

Apartamentu bat daukat Benidorm-en alokatzeko intxluan. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua. Labadora eta aire girotua.
Tr 74 16 57 / 11 32 15

PISU BAT SALGAI Altzolana. Karmen plaza 3 - I zekerra. (15 milioi)
 Interesatuok etorri hertora.

LOKAL KOMERTZIAL BAT EDO GARAJE BAT saltzen da Urasandin. Prezio interesgarria.
tr 74 21 86

MOTOR bat daukat SALTZEKO G.A.C. Onix 2. 900 km. Gauzez deitu, 8etatik aurrera.
is• 74 29 32

GARAJE BAT alokatzen da pista beltzean. Marraduna da.
Tr 74 21 64

GARAJE BAT alokatzen da San Roke Sean. Marraduna.
ms 74 08 05

BROTHER TRIKOTOSA BAT SALTZEN DUT. Bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.
Tr 74 18 51

SURFeko tabla bat saltzen dut 20.000ptatan "Esus" markakoa.
a 74 07 61 Julen (afal orduetatik aurrera.)

San Roke auzoan GARAJE BAT alokatzeko daukat.
Tr 74 00 67 Martin

KANPING KARRO BAT eta osagarriak saltzen ditut. Egoera onean.
11 74 19 39 Mari Sol

ARDI TXAKUR kumeak salgai dauzkat.
Tr 74 31 35
 Lizundia Txabola baserria

GARAJE BAT SALTZEN DUT Olasopeco (Olaso Industrialdea) 40. zenbakian, higarren solairuan.
z• (941) 11 03 05 Rafa

KANPING DENDA HAUNDI BAT saltzen da. Oso berria dago.
zr 74 15 22

1 LARUNBATA

10,00 GURASOEN JAIA IKASTOLAN

Altxor BiIa, Haurrentzako jolasak, gurasoen jokuak eta bazkaria. Arratsaldean gurasoen kirol aipamenak eta musika saioa.
✓ Ikastolan

22,15 ZINEA

"Philadelphia" USA 1993
Zuzendaria: Jonathan Demme.
Aktoreak: Tom Hanks, Denzel Washington eta Antonio Banderas.
✓ Herriko Antzokian
Sarrera Doan

22,30 BERTSO JAIALDIA

Bertsolariak: Andoni Egaña, Jon Lopategi, German Meabasterretxea, Iñaki Murua eta Xabier Zeberio.
Trikitilariak: Zabaleta eta Imanol
✓ San Migelen
Antolatzaileak: San Migeleko Jai Batzordea eta Elgoibarko Izarra.

19 IGANDEA

SAN MigELTARREA1 EqUNA

11,00 MEZA

Ondoren HAMAIKETAKOA

12,00 MORKAIKUPE PELOTA TXAPELKETAKO AZKEN PARTIDUA

Ondoren MAIXA, ITZIAR eta GARBIÑE TRIKITILARIAK

14,00 ANAIARTEKO BAZKARIA

Ondoren ERROMERIA

16,30 ZINEA

"El retorno de las brujas"
b/ Herriko Antzokian
Sarrera Doan

22,15 ZINEA

"Philadelphia"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera Doan

yo ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Philadelphia"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera Doan

ASTEARTEA

08,00 TXOTXONGILOAK

"O pito de Bolita o que pita"
OHoko haurrentzat
✓ Herriko Antzokian.
Antolatzailea: Galizia Etxea.

19,00.19,30 NAHASTE BORRASTE

✓ Irteera Kimetz elkartetik.
Antolatzailea: Kimetz Elkartea

22,15 ZINEA

"Philadelphia"
b/ Herriko Antzokian
Sarrera Doan

23 OSTEGUNA

19,30 HITZALDIA

Gaia: Insumisioa eta objezioa
Hizaria: Patxi Agirre (EGIko Gipuzkoako ordezkaria)
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: EGI

2R1 OSTIRALA

19,30 PINTURA ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Egur
Uztailaren 10era arte.

19,30 MAHAI INGURUA

Gaia: Karidadeko alabak Elgoibarren.
Hizlariak: Koldo Lizarralde (historialaria), Sor Itziar Etxeberria (Karidadeko alaba) eta Joxin Arregi (apaiza).
✓ Kultur Etxean

21,30 TRIKITILARI ESKOLAKO JAIALDIA

✓ Herriko Antzokian

txandak

FARMAZIAK:

18, larunbata: Bidasolo
19, igandea: Bidasolo
20, astelehena: Yudego
21, asteartea: Yudego
22, asteazkena: Yudego
23 osteguna: Yudego
24, ostirala: Ormazabal

OKUNDEGNA:

19 igandea: BOUTIQUE DEL PAN
1-2

A

herlade pluta

HIESaren errealitate sozialari buruzko pelikula gogorra da. Transzendentzia handikoa bada ere, gaisotasun hau gutxi tratatu da zinean. Abokatu gazte batek (Tom Hanks), lan egiten duen enpresan nabarmentzea lortuko du. Bapatean, kalera botako dute, enpresako zuzendarien iritziz nahikoa ona ez delako: bere ustez, berriz, HIESa daukalako. Homosexualei buruzko aurriritziak gainditu beharko dituen abokatu batek (Denzel Washington) defendatuko du juizioan.

Isq115.1,

RUZ

German Meabebasterrebea

Andoni Egaña

ion Loiategi

Iñaki Murua

Xabier Zeberio

Ondoren

Zabaleta eta Imanol trikifilak

EKAINAK 18
gaueko
10,30etan

ANTOLATZAILEAK: San Migeleko jai batzordea eta Elgoibarko Izarra K. E.

LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia



Elgoibarko EAJ/PNVko Uri Buru Batzarrak jarraitzale guztiei eskerrak eman nahi dizkie Europar Legebiltzarrerako hauteskunde hauetan, euren botoaren bidez, ezarritako konfidantzagatik.

Aldi berean, zorionak eman nahi dizkizuegu lortutako emaitza onengatik eta laguntasunezko bide honetatik jarrai dezazuen animatu nahi zaituztegu, gure lorpenak gero eta gehiago izan daitezen.

Elgoibarko EAJ/PNV

eI
.tLeigOI*



Golf GTI. Ezin kendu burutik.



Autos Eibar, S.A. Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR